

FURGONETAZ BIDAIATZEA: ETXEA NAHI DEN TOKIAN

Amagoia MUJKA TELLERIA

Arkaitz Apalategik eta Nagore Lizarralde asko maite dute furgonetan bidaiatzea. Lehendik martxan dute EH Furgo izeneko webgunea, eta orain, liburua argitaratu dute, "Euskal Herria furgonetaz, ibilbiderik onenak". Bizimodu horren zaleei aholkuak ematea da helburua.

Kantabria aldean harrapatu ditugu Arkaitz Apalategi eta Nagore Lizarralde, EH Furgo egitasmoaren atzean dagoen bikote ibiltaria. Berez Erronkari alderako asmoa zuten, baina beroa zetorrela eta, plana aldatu eta Kantabriara joan dira, freskuraren atzetik. Hori da furgonetan bidaiatzearen abantailetakoa bat, planak erraz alda daitezkeela eta ez dela inongo hoteletan erreserba egin edo bertan behera utzi beharrik.

Desabantailaren bat aipatzekotan, beroa egiten duenean ez dela erraza babesa topatzea eta eulien erasoak ere ohiko samarrak izaten direla. Askotan, gainera, bata bestearekin datoz: «Beroa egiten duenean dena irekita utzita lo egitea ateratzen zaizu eta euliak etortzea errazagoa da horrela. Gertatu izan zaigu eltxo tigre horietakoek janda esnatu izana», azaldu du Apalategik.

Baina bistan da furgonetan bidaiatzearen abantailak gailentzen zaizkiela desabantailai, bestela ez lukete bidaiatzeko modu hori hainbeste goratuko.

Umetan kanpinetan hazitakoak dira biak. «Gurasoekin beti bidaiatu izan dugu modu horretan. Kanpinetan ibili izan gara, eta gure etxean izan zen furgoneta bat garai batean. Modu horretan bidaiatzeak eskaintzen duen askatasuna gustatzen zaigu bioi».

Duela bederatzi urte inguru hasi ziren, bigarren edo hirugarren eskuko furgoneta batekin. «Guk beti esaten dugu lehendabizi probatu egin behar dela. Berez edonork bidaia dezake furgonetan, baina gustatu egin behar zaizu bizimodu hori. Pandemiaren ostean ikusten ari gara bat-batean autokarabana handiak erosi dituztela askok, zerotik ehunera, au-

rretik bidaiatzeko modu hori probatu gabe. Jende asko hasten da furgoneta txiki batekin proba egiten, sortzen diren beharrak ikusten eta pixkanaka handiago batera pasatzen da. Guk uste dugu mundu honetara gerturatzeko modua hori dela, pixkanaka eta probatuz».

Apalategik esan duenez, ez dago furgonetan bidaiatzeko mugarik. «Berez edonork bidaia dezake. Gero, norberaren izaeraren arabera, gauza batzuk edo beste batzuk aukeratuko ditu. Ezagutu izan ditugu bizpahiru hurrekin furgoneta txiki batean bidaiatzen dutenak, eta baita lehen haurra izan orduko autokarabana handia erosten dutenak ere. Norberaren izateko moduak eta gustuek eragiten dute horretan».

Bada, baina, denek bete beharreko baldintza bat: bidaiatzeko modu hori gustatzea. «Bost-zortzi metro karratutan bikotearekin edo familiarekin batera bizitzea gauza ederra da batzuentzat, eta beste batzuentzat, jasanezina.

Furgonetan bidaiatzea ez da denen gustukoa izan behar nahitaez. Guri gustatu egiten zaigu, baina beste askori ez, eta normala da».

«APARTAMENTU BAT NAHI DUGUN TOKIAN»

Furgonetaren barruko espazioa mugatua da, baina kanpokoak, kasik mugagabea. «Guk askotan esaten dugu apartamentu bat daukagula nahi dugun tokian. Aukera ematen dizu zure etxea muntatu eta bertan nahi adina egun pasatzeko», esan du Apalategik. «Furgonetak aukera ematen digu edozein tokitan geratzeko eta askatasunez mugitzeko. Planak aldatzeko, toki batean egun gehiago egoteko edo gutxiago... unean erabakitzeko askatasuna ematen digu».

Dena ez da inprobisazioa izaten, ordea. Gustatzen zaie bidaiatu aurretik informazioa biltzea. «Hango eta hemengo webguneetan ibiltzen gara begiratzen». Hortik sortu zitzaaien beraien gisa ibiltzen direnei laguntzeko

